Araudiak ezarri du 10 taldeko 5 talde direla, eta hiru fasetan lehiatuko dira. Lehen fasea amaitutakoan, lehen mailako azken hiru taldeak bigarren mailara jaisten dira. Bigarren mailako hiru talderik onenak lehen mailara igotzen dira, eta talde bakoitzeko hiru azkenak hirugarren mailara jaisten dira. Azkenik, hirugarren mailako talde bakoitzeko lehen hirurak bigarren mailara igoko dira.

Txapelketa jokatzeko dute Beraungo eta Fanderiako belar artifizialeko Udal Estadioetan, igandero, 09:00etatik 14:00ak arte. Partidua ikusteko sarrera doanekoa da jendearentzat.

Futbol-7 Txapelketan parte-hartzen dutenek gogogabetasun-maila handia erakusten dute. Eta, hala dela erakusten du 2016ko maiatzean parte-hartu zutenen artean Errenteriako udaleko kiroletako azpisailak berak egindako inkesta batek.

Emaitzen arabera, inkestatuen %53,21k Txapelketa "oso on"tzat hartu zuen, eta %16,51k "bikain"tzat. Eta soilik %5,00 baino gutxiagok "txar"tzat edo "oso txar"tzat hartu zuen.

%34,86k Txapelketaren kalitatearen eta parte-hartzeagatik ordaintzen den prezioaren arteko lotura "ona" dela edo "oso ona" dela uste du, eta %30,28k "normala" eta %23,85k "txarra" dela.

Inkesta 2016ko maiatzean zehar egin zen eta hainbat alderdiri buruz galderak egin ziren: txapelketa antolaketaren gaineko ezaugarriak, kirol instalazioen kalitatea eta Txapelketaren web orria.

6.7.- Behobia-Donostia 2017.

Urtero bezala, azaroko bigarren igandean Behobia-Donostia lasterketaren hitzordua izan genuen. 2017ko edizioan Behobia-Donostia lasterketak bere jatorria gogoan hartuta lehenengo edizioetan izan zituen nortasun ezaugarriak berreskuratu nahi izan zituen, horietako bat Errenterian barrena pasatzea izanik.

Era horretan, parte-hartzaile guztiek bizi izan zuten berrikuntzarik handiena ibilbidea berritzea izan zen. Gaintxurizketa gainetik zuzenean lehengo N-1 (egun GI-636) errepidean barrena Errenteria osoa zeharkatu zuten. Nolanahi ere, erabaki horrek lasterketak 1979ko ediziora arte edizio guztietan izan zuen ibilbidea berreskuratu baino ez zuen egin. Lehengo ibilbidea berreskuratzeak ahalbidetu zuen Behobian parte hartu zuten kirolari guztiek bertatik bertara sentitzea Errenteriako biztanleek proba horri eskainitako harrera beroa.

6.8.- Donosti Cup Errenterian.

Errenteriako Udalaren kirol instalazioak berriro, beste urte batez, bihurtu dira, Donosti Cup-en egoitza. Donosti Cup delakoa oinarrizko futbol txapelketa ospetsua da, eta urtero udan Donostian izaten da.

Aurtengoan txapelketa horren 25. ekitaldia egin dute, eta Fanderiako Estadioa nahiz Beraungo Estadioa hautatu dituzte antolatzaileek Gipuzkoako hainbat kirol instalazioren artean.

6.9.- Eskola Kirola.

Asteburu bakoitzean 1.500 ikasletik gora parte hartzen dute. Ikasleak 8 eta 12 urte bitartekoak dira, benjamin eta alebin mailakoak. Irailean (2017) hasi ziren eta maiatzean (2018) bukatuko dute. Guztira 24 jardunalditan arituko dira.

Oarsoaldeko udalek hamabost urte daramate kalitatezko eskola kirola sustatzen eskualdeko ikasleentzat. Eskualdeko mahaiak egindako lanari esker, egun ahalbidetu egiten da eskola kirolean kirol formazioa eta euskararen ezagutza eta erabilera.

Hainbat datu esanguratsu eman genitzake, esate baterako Oarsoaldeko ikastetxeetan matrikulatutako 8 eta 12 urte bitarteko 2.757 ikasleetatik 1.392 ikaslek egiten dutela eskola kirola (%51). Hori horrela, eskola kirola eskolaz kanpoko jarduera nagusia da neska-mutilen artean.

Antzematen da emakumezkoen parte-hartzea urtetik urtera handituz doala. Parte hartzen duten neskak %32,10 dira eta mutilak, berriz, %67.

Kirolari horietatik guztietatik, 795 bat Erreterriako ikastetxeetakoak dira. 2016-2017 denboraldian 78 taldetan kokatu dituzte; 37 benjamin mailan eta 41 alebin maila. Bestalde kopuru hori ia-ia aurreko urteko denboraldiko kopuru bera da.

Jokatzen diren kirolak honakoak dira: futbola, errugbia, eskubaloia, saskibaloia, pilota, atletismoa, igeriketa, orientazioa, herri kirolak, jarduerak naturan, kirol egokitua, hockeya, piragüismoa, arrauna eta triatloia.

Azken datu gisa, egun eskola kirola %100ean euskaraz egiten da, azkeneko urteotan egindako lanari esker; izan ere, erakundeetatik bultzatu egin da begiraleek kirol formazioa jaso eta euskara jakin eta erabiltzea.



6.10.- Emakumezko Taldeen Babesleak . 2017ko denboraldia.

Errenteriako Udaleko Berdintasunerako sailak emakumezkoen kirola sustatzearekin zerikusia duten kirol programak diruz laguntzeko 2016/2017 denboraldiko diru-laguntzak ebatzi ditu. Honako programak hautatu dira: Ereintza Eskubaloia (1.413,90.- euroko diru-laguntza), Hibaika Arraun Elkarte (1.848,94.-euroko diru-laguntza), Errenteriako Atletismo Taldea (1.667,67.-euroko diru-laguntza) eta Leire Fernández Abete (1.069,49.-euroko diru-laguntza).

Talde eta norbanako kirolari horiek izan dira puntuaziorik handiena lortu dutenak Errenteriako Berdintasunerako Kontseiluak antolatutako lehiaketan zein talde babestea erabakitzeko. Guztira, laurogei bat emakume kirolari izan dira babes hori jaso dutenak.

Hautatuak aukeratzeko klubarekin zerikusia duten hainbat alderdi hartu dira kontuan, hala nola zuzendaritzan emakumeak egotea, ekipo teknikoa eta kirolariak, emakumeek zein urtetan hartu zuten parte lehenengo aldiz lehiaketa ofizial batean edo klubak zenbat emakumezko kategoriatan parte hartzen duen.

Horretaz gain, kontuan hartu da ekipoa zenbat emakumek osatzen duten, zein kategoriatan jokutzen duten edo urte kopurua eta, azkenik, ekipo bakoitzak izango duen gastu proposamena.

Ekimena zuzenean loturik dago kirol alorrerako Errenteriako Udalaren Berdintasunerako Planak ezarritako helburuekin eta asmoa dute oinarrizko bi alderdi hauetan eragitea: antolatutako kirolean emakumeen presentzia eta parte-hartzea areagotzea eta emakumeen kirol jarduna bistaratzea.

Era horretan lehiaketa proposatzen duen babesak atal hauek ditu:

- Diru-laguntza ekonomikoa babestutako talde guztientzat.
- Taldearen irudia Berdintasunerako Kontseiluari lotu.

- Klubek dituzten giza baliabideen nahiz teknikoen erabilera egokia sustatzea.
- Emakumezkoen kirolaren presentzia mediatikoa hobetzea, Errenteriako Udalaren Berdintasunerako sailak egindako lanaren bidez.

6.11.- Emakumea eta Kirola Errenterian.

2017ko abenduaren 31n Errenteriako udal kirol instalazioetan (Galtzaraborda, Fanderia eta Beraun) abonatuak zegoen pertsona kopurua 12.224 zen. Horietatik %50,30 emakumeak ziren. Familia-abonuen kasuan, abonua mota honetan %53 emakumea agertzen da titular gisa.

Errenteriako eta Fanderiako kirol instalazioetan antolatutako helduentzako ikastaroetan parte-hartzen dutenen portzentajea %81,55 izan da denboraldi honetan, eta haurrentzako jardueretan %49,89.

Galtzarabordako kiroldegian hirugarren adinakoentzako gimnasiako ikastaro espezifikoen (Gimnasia 60 plus) 117 bat lagunek parte-hartu dute, eta horietatik %79,49 emakume ziren.

Errenterian parte-hartze herrikoia sustatzeko probetan, 2016-2017 denboraldian emakumeek izandako parte-hartzearen portzentajea honakoa izan da

Proba	2015 / 2016		2016 / 2017	
San Markorako Igoera	4	4,65%	16	15,04%
San Silbestrea	239	25,60%	372	36,72%

6.12.- Kirol Gala.

Abenduaren 13an, Errenteriako Kirolaren Gala 2017 izan zen. Bertan izan ziren hainbat klub, kirolari, eskoletako kirol arduradunak eta, oro har, Errenteriako kirolari loturiko pertsonak. Ekitaldian Jaione Karrikiri Errenteriako Alkateordea izan zen, eta Jon Txasko Kirol Saileko zinegotzia. Ekitaldian 250 bat lagunek parte hartu zuten.

Alkateordeak, Jaione Karrikirik, topaketan parte hartzeagatik eskerrak emateaz gain, Errenteriako Kirola zoriondu zuen 2016/2017 denboraldian izandako lorpenegatik, eta lanean jarraitzera bultzatu zituen.

Era berean, 2017ko edizioan omenaldi berezia egin zitzaion Urdaburu Mendizale Elkarteari, 2017an bere 75. urteurrena bete duenari, baita Errenteriako hiru xake taldeei ere (Asociación Fomento Cultural, Luzaro Xake Taldea eta Beraun-Bera elkarte), gure herrian kirol minoritarioen alde lanean diharduten pertsonen ahalegina aitortzeko.

Gala honekin Errenteriako udalak babesa adierazi nahi die herriko kirol erakundeei, Jaionek adierazi zuen bezala kirolak gizartea aldatu eta bateratzeko ahalmena baitu.

Ekitaldian zehar 2017 urtean Errenteriako kirolaren parte-hartzea erakusten duen bideoa proiektatu zuten. Bideo hori ikus daiteke dagoeneko kiroltako azpisailaren web orrian ([bideoak](#) estekan sakatuz).

6.13.- “Mugituz” Jarduera.

Laugarren denboraldiz jarraian Galtzarabordako Udal Kiroldegian "Mugituz" jarduera egin da mugikortasun arazoak dituzten pertsonentzat, Errenteriako Udaleko Kiroltako Azpisailak antolatuta eta diruz lagunduta eta Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailaren lankidetzarekin.

Eskualdeko anbulatorioetatik osasuna hobetzeko jarduera fisikoa egin behar duten pertsonak bideratzen dira. Eskola horiek jaso ahal izateko osasun alorreko profesionalek emandako egiaztagiria aurkeztu behar da.

Funtsean, jarduera fisikoko ohiturak hartzea da helburua, jarduera honen erabiltzaileek mugikortasun eta bizitza kalitate hobea eskuratu dezaten. Ariketa gehienek eguneroko bizimoduaren mugimendu funtzionalekin dute zerikusia.

Jarduera honetan parte hartzen duten pertsona askok lehen gure instalazioak erabiltzen zituzten eta jarduera fisikoa egiteari utzi behar izan zioten, ez baitzuten beren burua gai ikusten igerian edo gure zentroan egiten den beste edozein jardueratan bakarrik aritzeko. Orain jarduera fisikoa gauzatzeko ilusioa berreskuratu dute, beren beharretara egokitzen den talde honi esker.

6.14.- Emakumeen Euskal Bira 2017, Erreterian.

Emakumeen Euskal Biraren XXX. edizioa 2017ko maiatzaren 17tik 21era egin zen. Txirrindulariak Iurretatik (Bizkaia) abiatu eta bost egunetan lehiatu ziren Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako errepideetan barrena.

Etapaka egiten den lasterketa hau, Nazioarteko Txirrindularitza Elkartearen egutegian dago sartuta, emakumezkoentzako 2.1 kategoriaren barruan, eta parte-hartze maila ezin hobea da. Azkeneko etapak, maiatzaren 21ean (igandea), zirkuitu batean egin zen Oarsoaldean barrena eta irteera eta helmuga Erreterian izan zituen.

Lasterketaz gain, Erreterriako Udalak ekintza batzuk antolatu zituen 2017ko apiril eta maiatzean, Erreterriako kirol entitate eta gizarte eragile batzuekin. Hauek izan ziren garrantzitsuenak:

- Txirrindularitza gaiei buruzko erakusketa Galtzarabordako Kiroldegiaren hallean. Txirrindularitzari buruzko erakusketan “Emakumeen Bira”ren aurreko edizioei buruzko argazkiez gain Erreterriako txirrindularitzarekin zerikusia duten txirrindularitza elkarte eta ekintzei buruzko argazkiak jarri ziren ikusgai.

-
- Gamon zumardiaren parean faroletan bizikletak jarri ziren zintzilik ikusgai, txirrindularitza-giroa jartzeko.
 - Herriko merkatarien arteko lehiaketa, erakuslehoietan txirrindularitzari buruzko gauzak jartzeko.
 - “Oarsotri Happy Talde Triatloi Kluba”rekin elkarlanean, haurrentzako triatloi jardunaldi bat egin zen Fanderian, Oarsoaldeako eskola kirolaren egutegiaren barruan.
 - Kromosoma Tailerra”k antolatuta, "Txirrindularitza materiala birziklatzeko tailerra" egin zen, Koldo Mitxelena ikastetxearen patioaren estalkiaren azpian.
 - “GURPILARTEA Bizikleta eta Garraiobide ez Kutsakorren Aldeko Elkarte”rekin elkarlaenan “Gold Sprint” izeneko proba antolatu zen Merkatuzarren.
 - “OZinema”ren laguntzarekin, txirrindularitzarekin zerikusia duen zinema saioa antolatu zen.
 - Emakumeen Birari buruzko argazki-lehiaketa, “AFC Argazkilaritza Taldea Erreterria”rekin elkarlanean.
 - Maiatzaren 15etik 21erako astean zehar sustatu egin zen joan-etorriak bizikletaz egitean (Udalera eta inguruetako tailerretara lanera doazen pertsonak, haurrak ikastetxera eta larunbatean eskola kirolera joateko,...).
 - Maiatzaren 19an, ostiralean, dokumentala proiektatu zen Emakumeen Birari buruz, Iztietako Khubide bizikleta dendan, “Khubide”k antolatuta.
 - Maiatzaren 20an, larunbatean, Nafarroa Etorbidean alebin eta infantil kategorietako haurrei zuzendutako “Erreterriako IV. Saria” egingo da, “Laguntasuna Auzo Elkarte - Txirrindularitza”k antolatuta.

- Maiatzaren 20an, larunbatean, eta “OTXEk – Oarsoaldea Txirindularitza Kirol Taldeak” antolatuta, Trial Erakusketa izan zen Gamon zumardiaren kioskoaren aurrean eta “Erreterriako Gurutze Gorria”k Gamon zumardiaren aurrean triziklo berezi batzuk jarri zituen ikusgai eta ikusleek probatzeko aukera izango zuten.

- Maiatzaren 20an, larunbatean, “Ibilaldi Neurtua” Erreterriako auzoetan (10:00etatik 12:00etara) egin zen geldialdiak eginez, Emakumeen Bira azaltzeko, “GURPILARTEA Bizikleta eta Garraiobide ez Kutsakorren Aldeko Elkarteak” antolatua.

- “Emakumeen Bira” egiteko Erreterriako udalak 19.000,00.-euroko diru-laguntza hitzarmen izenduna sinatu du probaren antolatzailea den “Iurretako Emakumeen Bira Ziklismo Kirol Elkarteak”ekin.

7.- BERAUNGO IGERILEKUAK

Beraungo udal igerilekua 2017 denboraldirako jendearentzat ireki zen ekainaren 20an eta irailaren 10ean itxi zen.

Hortaz, instalazioa irekita edukitzeko egutegia guztira 83 egun izan dira. Halaber, denboraldi osoan zehar instalazioa irekita egon den ordu kopurua honakoa da: 843 ordu.



Udal kirol instalazioen abonatuak instalazio horretarako sarrera librea zuten. Sarbide-kontrolaren arabera udal kirol instalazioen abonatuak 13.200 bat sarrera izan dira.

Halaber, guztira 2.820 sarrera saldu dira. Aurreko denboraldian, ordez, 4.331 sarrera saldu ziren.

2017ko denboraldian zehar Errenteriako Udalak bere aurrekontuaren kontura honako diru-kopuruak ordaindu ditu:

Kontzeptua	Zenbatekoa (BEZa barne)
Uretako Sorospena, Harrera eta Mantenimendu Zerbitzua	99.500,00.-
Garbiketa Zerbitzua	18.870,80.-
Gune Berdea Mantenimendua	4.952,88.-
Guztira	123.323,68.-

Halaber, igerilekuko uraren kalitatea kontrolatzeko produktu kimikoak erosi dira, 4.316,64.- eurokoak, eta konponketa lanak eta hornidurak egin dira, 18.630,13.- eurokoak.

Energia kontsumoari dagokionez, 12.735,22.- euro (BEZ barne) ordaindu da argindar kontzeptuan, eta 1.143,55.-euro (BEZ barne) gasaren kontzeptuan.

Era berean, udazken-negua denboraldian lorategi-lanak egin dira, 3.610,12.- eurokoak.

2017ko denboraldian instalazioa irekita edukitzeak ekarri duen balantze ekonomikoa 163.759,34.- euroko defizita izan da, hau da, irekita egon den egun bakoitzeko batez beste 1.973,01.- euro.

8.-KULTUR JARDUERAK KIROL INSTALAZIOETAN.

Ohiko jardueren osagarri gisa, udaleko kiroleko azpisailak 2017an zehar ondorengo kultur espedienteak tramitatu ditu:

EGUNA	JARDUERA	INSTALAZIOA
Otsailak 24	Ihauteriak – Konpartsen Aurkezpena	Kiroldegia
Martxoak 8	“Emakumearen Egunekeo” jaialdia	Kiroldegia
Apirilak 25	Erretereriako Udalaren Azterketa	Kiroldegia
Maiatzak 1	Dantzari Txiki Eguna	Kiroldegia
Azaroak 30	Mintzodromoa	Kiroldegia
Abenduak 4	Euskararen Egunekeo Jaialdia	Beraungo Kirol Pista
Abenduak 22	Benito Lertxundiren Kantaldia	Kiroldegia
Abenduak 30	Ereintzaren Gabon Kanten Jaialdia	Kiroldegia

Halaber, udal kirol instalazioetan zenbait gune utzi zaie “San Agustin – Erretiratuen Elkarte”ri, “Titanes Kultur Elkarte”ri eta “Beraungo Auzo Elkarte”ri, inauterietako entseguak egiteko.

Azkenik, Herriko jaietan zehar herriko feriariek Galtzarabordako udal Kiroldegiko instalazioak erabili dituzte komuneko eta dutxako zerbitzuak izateko. Guztira 261 erabilera izan dituzte, eta 2016an, ordea, 222 izan ziren.

Ekitaldi horietarako erabilera guztiak doakoak izan dira erakunde antolatzaileentzat.

9.- HITZARMEN ETA KONTRATAZIO NAGUSIAK

2017an zehar ondorengo hitzarmenak eta kontratazioak onartu dituzte:

- Lankidetzeta hitzarmena Don Bosco IEFPS”kin. Erretereriako Udal Kirol Patronatuak eta Don Bosco IEFPSek lankidetzeta hitzarmena sinatu dute, 2013ko

maiatzaren 15ean, Errenteriako kirol taldeek hezkuntza zentro horretan kokatutako Erabilera Anitzeko Pista erabil dezaten: Akordioak pista erabiltzeko egutegia aurreikusten du, hau da, irailaren 1etik ekainaren 15era arte, astelehenik ostiralera, 16:30etik 22:00etara, jaiegunetan izan ezik. Hitzarmen honen iraupena hiru urtekoa da, eta bi urteko epe baterako luzatu ahalko da, betiere bi aldeek hala adosten badute.

- Hitzarmena E.P.L.E. - Errenteriako Pilotaren Lagunen Elkartearekin "Entitatearen egitura orokorra dinamizatzea" proiektua exekutatzeko. Proiektu horren barruan dago Fanderiako "Agustina Otaola, Raketista Profesionala" Pilotalekua erabiltzea.
- Hitzarmena Ereintza Eskubaloia Kirol Elkartearekin "Entitatearen egitura orokorra dinamizatzea" proiektua exekutatzeko. Proiektu horren barruan dago Beraungo Erabilera Anitzetarako Udal Kirol Pista erabiltzea.
- Hitzarmena Touring Kirol Elkartearekin "Entitatearen egitura orokorra dinamizatzea" proiektua exekutatzeko. Proiektu horren barruan dago Fanderiako I Kirolgunearen erabiltzea.
- Errenteriako Udaleko kontratazio organoak "José Damián Borrero Rubio"ri adjudikatu dio Beraungo Mikel Odriozola Estadioan eta Futbol Zelaian Kontrol eta Harrera Zerbitzua emateko kontratua, 31.000,00.- eurotan (BEZ barne) lehenengo urtean. Kontratua bi urterako eman da eta beste bi urtez luzatzeko aukera dago.
- Cristobal Gamón Institutuarekin hitzarmena sinatu da, Errenteriako talde federatuek ikastetxe horretako aldagelak erabil ditzaten asteburuetan. Hitzarmen hau indarrean egongo da 2018ko abenduaren 31 arte.
- 2015eko abuztuaren 28an hitzarmena sinatu da Errenteriako Udalaren Ongizate Departamentuarekin, "Beti Bizkor" elkarteak antolatutako ikastaroak egin daitezzen Udal Kiroldegian. Hitzarmen hau indarrean egongo da 2018ko abenduaren 31 arte.

- Lankidetzeta hitzarmena sinatu da Errenteriako Udalaren Babes Zibileko Boluntario Elkartearekin, boluntario horiek udal kirol instalazioetan doaneko sarrera izan dezaten. Guztira 17 boluntario baliatu dira horretaz.

Era berean, Errenteriako zenbait klubek 2016an zehar udal jabetzako lokalak erabili dituzte: Ereintza Eskubaloia (Galtzarabordako Kiroldegia), Oarsoaldea Igeriketa K.E. (Galtzarabordako Kiroldegia), Oiarso Saskibaloia Taldea (Galtzarabordako Kiroldegia), Hibaika Arraun Elkarte (Hiltegi Zaharra), C.A.R. Errenteriako Atletismo Taldea (Nafarroa Hiribidea), EPLE Errenteriako Pilotaren Lagunen Elkarte (Fanderiako Pilotalekua), Beti Ona KE (Beraungo Estadioa eta Alabergako egoitza), Touring KE (Fanderiako Futbol Zelaia) eta Team Látigo Boxing Club (Pio Baroja ikastetxe zaharraren gimnasioa).

Errenteriako Udaleko Kiroletako Azpisailak Galtzarabordako Udal Kiroldegiaren areto bat prestatu du eskaera egiten duten kirol entitateek bertan bilerak egin ahal izan ditzaten. 2017. urtean guztira 138 erabilera kontabilizatu dira, 2016an, berriz, 142 erabilera kontabilizatu ziren.

10.- ERRETERIAKO KIROLAREN AHOLKU KONTSEILUA.

Udal Kirol Patronatua desegin eta Errenteriako Udalean txertatzeko Dekretuaren arabera, Errenteriako Kirolaren Aholku Kontseilua sortu da.

Aholku Kontseilu horren helburua da herriko kirol eragileak elkartzea herritarren parte-hartzea ahalbidetzeko, modu partekatuan gogoeta egin eta hobekuntza proposamenak egiteko helburuarekin. Kirolaren eta jarduera fisikoaren alorretan gizarte eragileek eta herritarrek dituzten beharrak antzeman nahi dira, behar horiei erantzuna emateko beharrezko baliabideak eta ekimenak abian jartzeko.

Kontseiluan kide dira herriko kirol entitateen bederatzi ordezkari eta osasun fisikoa eta kirola sustatzearekin zerikusia duten entitateen sei ordezkari (erretiratuen elkarteak, osasun alorreko teknikariak,...).

11.- BESTELAKO INFORMAZIOAK

11.1.- Komunikazioa

2017ko ekitaldian zehar guztira 84 prentsa-ohar idatzi ditugu, eta aurreko ekitaldian 78 izan ziren.

Erreterriako Udaleko Kiroletako Azpisailaren web orrirako sarrera kopurua (<http://kirolak.erreterria.net/es/html/>) honakoa izan da:

	Bisitari ezberdinak	Bisita kopurua	Bisitatutako orriak
Urtarrila	3.844	7.119	24.372
Otsaila	3.317	6.171	20.752
Martxoa	4.173	7.472	26.107
Apirila	3.288	5.897	18.370
Maiatza	4.135	7.127	23.181
Ekaina	3.987	6.576	20.236
Uztaila	2.469	4.382	9.069
Abuztua	2.758	4.653	12.617
Iraila	3.831	6.323	21.581
Urria	3.869	6.748	28.563
Azaroa	3.727	6.734	20.976
Abendua	2.981	5.234	15.674
Guztira	42.379	74.436	241.498

Hau da, web orriaren bisitari ezberdin bakoitza (42.379 pertsona) batez beste 1,76 aldiz sartu da eta web orriaren 5,70 sail ezberdinetan sartu da batez beste.

Halaber, 2017ko abenduaren 31n Errenteriako Udaleko Kiroletako Azpisailaren sare sozialetan jarraitzaile kopurua 1.321 zen Facebooken eta 429 Twitterren, eta 2016an bi sare sozialen jarraitzaile kopurua hurrenez hurren 1.056 eta 356 zen.

Udaleko Kiroletako Azpisailaren web orriaren bidez 37 kontsulta egin dira 2017ko ekitaldian, eta 2016koan 43 kontsulta.

11.2.- Jasotako kexak eta iradokizunak.

Kirol instalazioen erabiltzaileek idatzitako 104 kexa eta iradokizun jaso ditugu guztira. Kexa horietatik guztietatik %24,03 kirol instalazioen garbiketaren eta mantenimenduaren ingurukoak ziren, %28,85 eskainitako ikastaroetan sortutako hainbat arazori buruzkoak eta %47,12 zerbitzuak antolatzearen gainekoak (araudia betetzea...). Instalazioei dagokienez, jasotako kexen %33,65 Fanderiari buruzkoak ziren, %46,15 Galtzarabordako kiroldegia buruzkoak, %17,31 Beraungo Igerilekuei buruzkoak, eta %2,89 gainontzeko instalazioei buruzkoak.

Kontsumoko erreklamazioak eta erabiltzaile eta kontsumitzaileek jarritako kexa, erreklamazio eta salaketak artatzeko prozedura arautzen duen Eusko Jaurlaritzaren 142/2014 Dekretuari jarraiki, hiru pertsonak erreklamazio orriak bete dituzte kirol instalazioetan eskaintzen diren zerbitzuak direla-eta. Hala eta guztiz ere, salatutako inolako kasurik ez du ekarri Eusko Jaurlaritzak Errenteriako Udaleko Kiroletako Azpisailari zigor espedienterik jartzerik.

11.3.- Euskararen erabilera.

2017an Errenteriako Udaleko Kiroletako Azpisailari igorritako 357 idazkietatik %19,05 euskara hutsez idatzita zeuden, %66,67 gaztelera eta %14,29 elebidunak ziren.

2017an Errenteriako Udaleko Kiroletako Azpisailak bidalitako 389 idazkietatik %4,37 euskara hutsez idatzita zeuden, eta gainontzekoak, %95,63 elebidunak ziren.

Errenteriako Udaleko Kiroletako Azpisailari igorritako kexetatik %6,73 euskara hutsez zeuden idatzita, eta gainerako %93,27 gaztelera hutsez.

Errenteriako Udaleko Kiroletako Azpisailari web orriaren bidez egindako informazio eskaeretatik %5,4 euskaraz idatzita zeuden eta gainerakoak gaztelera.

11.4.- Bestelako datu Administratibo batzuk.

- Udal antolaketari buruzko gogoeta epe baten ondoren, komenigarritzat jo da udal sailak/azpisailak koordinazio eta planifikaziorako hiru eremu handitan multzokatzea, udal administrazioa bere hiru elementu integratzaileen ikuspegitik kontsideratuta: Antolaketa, Lurraldea (espazio fisikoa) eta Herritarrak (giza elementuak). Ildo horretan, eta abenduaren 23ko alkatetza dekretu bidez, onartu egin da udal antolaketaren konfigurazio berria hiru eremu instituzional handi horietan. Horiek horrela, Kirolak azpisaila Herritarren eremuan txertatua geratu da.
- Errenteriako Udaleko Kiroletako Azpisaileko Zinegotzi ordezkariak 89 dekretu idatzi ditu kiroltako azpisailaren emakiden eta xedapenen gainean.
- Errenteriako Udaleko Kiroletako Informazio batzordearen bost bilera egin dira guztira. Apirilaren 24an Udalbatzak aho batez onartu du indargabetzea, besteak beste, Kirolak saileko batzorde informatiboa, eta Herritarrak batzorde informatiboan integratzea,

bertan landuko baitira azpisail horri dagozkion gaiak. Batzorde hori hauek osatzen dute: EH Bilduko hiru ordezkari, Erreteria Irabaziz-eko hiru kide, PSE-EEko (PSOE) hiru eta EAJ-PNVko bi ordezkari.

- Ekitaldi honetan Kirolaren Aholku Kontseiluaren bi bilera egin dira (martxoaren 14an eta azaroaren 30ean).

Kiroletako Azpisaileko Arduradunak



KIROLARI
EKIN
Erreteria aktiboa

Stua.: Luis Peña